AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

4828

189/2026 DEKRETUA, azaroaren 10ekoa, Euskadiren Argentinako eta Uruguaiko ordezkaria kargutik kentzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.j), 26.6 eta 29. artikuluetan, eta Euskal Sektore Publikoaren 13.4 c) eta 13.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, lehendakariak hala proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2026ko azaroaren 3an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Sara Pagola Aizpiri andrea Euskadiren Argentinako eta Uruguaiko ordezkari kargutik kentzea, berak hala eskatuta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko azaroaren 10ean.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.